

HIRIA

Biztanleria

Iruñeak 198.107 biztanle zituen 2012ko bukaeran. Horrek esan nahi du 959 biztanle gutxiago zituela urtebete lehenago baino. Jaitsiera hori batez ere gertatu da jendea beste herri batzuetara bizitzera joan delako; Iruñerrira, bereziki. Baina batez ere atzerritarrak beren sorterrira itzuli direlako edota Espainiako edo atzerriko beste leku batzuetara joan direlako.

Iruñeko biztanleriaren mugimendu naturala, hau da, jaiotzen eta heriotzen arteko aldea, oso txikia izan da azken urteotan, eta ia ez du eraginik biztanleen kopuru aldaketan. 2012an, 1.771 jaiotza izan

ziren, eta, heriotzak, berriz, 1.610 izan ziren. Hazkunde begetatiboa, beraz, hutsala izan zen.

Iruñeko biztanleriaren baitako sexuen arteko erlazioak egonkor dirau ohiko parametroen barruan, baina emakumeak gehixeago dira (% 52,3) gizonak baino (% 47,7). Nahiko egonkor dirau, baita ere, adintalde handien arteko banaketak, aldaketa txikiak badira ere: 15-64 urtekoen taldea arian-arian ari da jaisten, eta gora doa, berriz, 65 urtetik gorakoen ehunekoa. 14 urtetik beherakoetan ia ez da aldaketarik gertatu.



MEMORIA 2012
18

Iruñeko demografia-datuak, urte bakoitzeko abenduaren 31n

Adierazleak	2008	2009	2010	2011	2012
Gizonak	95.745 % 48,0	95.183 % 47,9	94.903 % 47,8	95.153 % 47,8	94.568 % 47,7
Emakumeak	103.779 % 52,0	103.576 % 52,1	103.538 % 52,2	103.913 % 52,2	103.539 % 52,3
Biztanleak 0-14 urte	27.243 % 13,65	27.313 % 13,74	27.447 % 13,83	27.732 % 13,94	27.479 % 13,87
Biztanleak 15-64 urte	135.105 % 67,71	133.698 % 67,26	132.353 % 66,70	131.822 % 66,22	130.065 % 65,65
Biztanleak >65 urte	37.176 % 18,64	37.748 % 19,00	38.641 % 19,47	39.512 % 19,85	40.563 % 20,47
Gazteria-tasa*	35.089 % 17,58	34.078 % 17,14	32.248 % 16,25	32.541 % 16,34	31.607 % 15,95
Mendekotasun-tasa**	0,47	0,48	0,50	0,51	0,52
Zahartze-indizea***	1,36	1,38	1,40	1,42	1,47
Atzerritarrak	25.004 % 12,53	25.211 % 12,68	25.347 % 12,9	25.208 % 12,7	23.964 % 12,1
Biztanleria, guztira	199.524	198.759	198.441	199.066	198.107

Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Nork egina: Soziologia Unitatea

* 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, biztanleria osoan

** 65 urtetik gorakoak + 14 urtetik beherakoak, 15 eta 64 urte bitartekoaren aldean

*** 65 urtetik gorakoak, 14 urtetik beherakoaren aldean

65 urtetik gorakoak

Urtea	Gizonak (%)	Emakumeak (%)	Guztira>65
2005	39,5	60,5	35.444
2006	39,6	60,4	35.837
2007	39,7	60,3	36.281
2008	40,2	59,8	37.176
2009	40,2	59,8	37.748
2010	40,3	59,7	38.641
2011	40,5	59,5	39.512
2012	40,7	59,3	40.563

100 urtetik gorakoak

Urtea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2005	30	134	164
2006	22	93	115
2007	18	72	90
2008	9	56	65
2009	11	56	67
2010	9	57	66
2011	7	56	63
2012	15	77	92

Gazteria-tasak (15-29 urte) ez du aldaketa handirik izan azken urteotan, nahiz etorkin gehienak gazte diren. Gazteria-tasa aldaketarik gabe mantentzeko edo pixka bat jaisteko arrazoia jaiotza-tasan beherakada handia izan zuten adin-kohorteen lerratzea izan da. Izan ere, jaiotza-tasaren beherakadak bi hamarkada iraun zuen, 1980tik 2000ra. Eta, gaur egun, ez du gora egiten, besteak beste ekonomia-krisi larriak eta biztanleriaren egiturak berak eraginda.

Mendekotasun-tasa hamarren bat igo zen 2012an, % 0,52raino, eta ia erritmo berdina izan du serie osoan zehar. Biztanleriaren egoera ezagutzeko beste adierazle garrantzitsu bat zahartze-indizea dugu, horrek 65 urtetik gorakoen eta 15 urtetik beherakoen arteko proportzioa ezartzen baitu. Gaur egun, indize hori 65 urtetik gorako 1,47 lagun da

15 urtetik beherako lagun bakoitzeko. Laburbilduz, adinekoak haurrak baino gehiago dira, eta biztanleriak pixkanaka zahartzera jotzen du. Bitxikeria gisa esan daiteke ehun urtetik gorakoen kopurua handi samarra dela. 2012an, adibidez, 90 lagun ziren; gehienbat, emakumeak.

Demografia-datuak labur-labur aztertzerakoan, ezinbestekoa da immigrazioa aipatzea. Azken hamarkadan, etorkin asko etorri dira atzeritik Espainiara, Nafarroara, eta, horrenbestez, Iruñera ere. Orain, 23.964 atzerritar daude eroldaturik Iruñean, hau da, Iruñeko biztanleen % 12,6. Gure artean, 130 herrialdetako pertsonak bizi dira, eta haien artean nagusi dira Hego Amerikatik, Europako ekialdetik eta Afrikatik etorritakoak. 2012an, 1.244 lagunetan jaitsi zen lehen aldiz atzerritar kopurua; ziurrenik, ekonomia-krisiaren gogortasunak eta iraupen luzeak eraginda. Era berean, nabarmen egin zuen behera nazionalizazioen kopuruak; 1.600etik 800 ingurura, hain zuzen. Ziur aski herrialdea gogor jo duen egoera ekonomiko zaila ari da migrazio-prozesuari lotutako gertakari horiek guztiak baldintzatzen.





MEMORIA 2012
20

Iruñeko biztanle guztiak adinaren eta sexuaren arabera banatuak (2012ko abendua)

ADIN-TALDEA	Gizonak	Gizonak (%)	Emakumeak	Emakumeak (%)	GUZTIRA	Guztizkoa (%)
0 - 4 urte	4.791	5,0662	4.417	4,266	9.208	4,648
5 - 9 urte	4.820	5,0969	4.493	4,3394	9.313	4,701
10 - 14 urte	4.537	4,7976	4.421	4,2699	8.958	4,5218
15 - 19 urte	4.700	4,97	4.473	4,3201	9.173	4,6303
20 - 24 urte	5.006	5,2935	5.153	4,9769	10.159	5,128
25 - 29 urte	6.055	6,4028	6.220	6,0074	12.275	6,1961
30 - 34 urte	7.475	7,9044	7.180	6,9346	14.655	7,3975
35 - 39 urte	7.857	8,3083	7.752	7,487	15.609	7,8791
40 - 44 urte	7.823	8,2724	7.764	7,4986	15.587	7,868
45 - 49 urte	7.412	7,8377	7.689	7,4262	15.101	7,6226
50 - 54 urte	6.503	6,8765	7.029	6,7887	13.532	6,8307
55 - 59 urte	5.628	5,9513	6.553	6,329	12.181	6,1487
60 - 64 urte	5.462	5,7757	6.331	6,1146	11.793	5,9528
65 - 69 urte	5.004	5,2914	6.143	5,933	11.147	5,6268
70 - 74 urte	3.717	3,9305	4.579	4,4225	8.296	4,1876
75 - 79 urte	3.382	3,5763	4.574	4,4177	7.956	4,016
80 - 84 urte	2.522	2,6669	4.081	3,9415	6.603	3,333
85 - 89 urte	1.291	1,3652	2.833	2,7362	4.124	2,0817
90 - 94 urte	476	0,5033	1.355	1,3087	1.831	0,9242
95 - 99 urte	92	0,0973	422	0,4076	514	0,2595
99tik gora	15	0,0159	77	0,0744	92	0,0464
GUZTIRA	94.568	100	103.539	100	198.107	100
	% 47,7		% 52,3		% 100	

Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Nork egina: Soziologia Unitatea